

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektu honen helburua da sortzea leiho bertikal bat, kotxeetako leiho elektrikoen antzera funtzionatuko duena, baina aplikazio desberdinetarako erabilgarri izan dadin. Leiho tradizionalak normalean horizontalean irekitzen dute eta horrek espazio gehiago okupatzen du bai barrualdean bai kanpoaldean.

Diseinu honek motor elektriko txiki bat izango du, engranaje eta gidari bertikalekin lotuta, kristala modu kontrolatuan igotzeko eta jaisteko. Kontrol-sistema botoi baten bidez erabiliko da autoetan bezalaxe, baina baita urrutiko aginte edo aplikazio baten bidez ere programatu daiteke. Segurtasun neurriak ere aurreikusi behar dira: adibidez oztopo bat aurkitzen badu leihoak automatikoki geldiarazi eta atzera egin beharko luke, erabiltzailearen segurtasuna bermatzeko.

Aplikazio ugari izan ditzake: etxeetan, espazio txikiko bulegoetan, autobusetan, karabanetan, edo baita tailer eta lokal komertzial txikietan ere. Bere abantaila nagusiak dira espazioaren aprobetxamendu hobeak, itxura modernoa eta erabiltzeko erraztasuna. Energia kontsumoa txikia izango litzateke, motorra momentu zehatzetan soilik aktibatuko delako.